



SAN ADRIAN KOBAKO
SARRERA, AIZKORRIN

AUTOPISTAK, GAUZA BERRI? ALA ZAAR? (Atzera begira)

MANUEL LEKUONA'K

«Autopistak Euskalerrian» esan nai degu—Bizkai'an eta Gipuzkoa'n—; eta «Nundik barrena, nundik zear»; Autopistaen «trazatua», alegia... Berri? ala zaar?, Kondaira apur.

Autopistaetan aztertu bait diteke, trazatuaz gañera, baita pistaen ogea, eta arria etab. Bañan oge ta arri-kontuak ingeniero jaunentzat uzteko esan digute, eta guk «nundik barreneko kontuari» begiratzeko. Autopistak, askotan erriak, ukitu gabe, baztartuta uzten bait dituzte...

Ain xuxen, bada, orixe da, guk emen aztertu nai deguna. Eta aztertu ere, auxe esateko: leengo gure biderik zaarrenak—leengo estrata ta galtzada zaarrak—olaxe egiñak daudela edo zeudela: erririk ikutu gabe, biderik laburrenetik...

Ea, alkar aditzen degun.

* * *

Erri Bildurik oraindik etzan garaiko bideak aztertu nai ditugu guk gure lantxo ontan: antziña-antziñako bideak, Erri Bilduak anartean sortu gabe zeuden garaikoak: Erdi Aro gorekoak.

Erri Bilduak, geienak, erriberatan egin bait ziran, eta Erdi Aroaren bukaera egin ere. (Erri Bilduak baño zaarragoak dira bideak). Eta bideak—orduko bideak—«gañez-gain» ziran, ez erriberarik-erribera, bizkarrik-bizkar baizik, edo-ta mendi-paldaz-palda: goitik: «Eutsi goiari!» esan oi dan bezela.

Erriberaz-erribera dijoazen bideak, geroztikoak dira: Erdi Aroaren azken-aldean Erri Bilduak sortu ziraneko garaikoak. Or dago, gai ontako gure korapillo-problemaren «giltzarria»: Euskalerrian ditugun bide zaarrak, Erri Bildurik oraindik etzan garaikoak dirala.

* * *

«Erri Bilduak» diogu: erderaz «Villas» esan oi diranak; eta «Gipuzkoa'n eta Bizkai'an». Erdi Aroaren azken-alde arte, Euskarrria, Gipuzkoa eta Bizkai'a, dana erri-banatu bait zan: baserritan banatu—orain ere asko ta asko dan bezela—. Ori da, izan ere gure «Geografia humana» esan dezakeguna: baserria.

Gipuzkoa'tik eta Bizkai'tik kanpora beste kontu bat da. Nafarroa'n bertan eta Araba'n—eta Gaztelerrrian zer esanik ez—erriak ez dira baserri banatuak, erri bilduak baizik. Gure Erria, berriz, gure Erri jator, tipikoa, «baserri» edo-ta «borda» da: artzai-legean sortua.

Orregatik, orduko bideak, etzuten erri-billa joaterik; aal zan zuzenena beren elburura joaten ziran. Gero etorri zan, bideak erri-billa, erriberetara jeistea; Erri Bilduak erriberatan egin ziran.

* * *

Izaera au kontuan euki gabe gauzak pentsatzeak, okertu ditzake, ez gutxi, bideai buruzko gure pentsakizunak.

Izan ere, askotan, oraingo bideetatik neurtu nai izaten ditugu leengo bideen egoerak eta izaerak. Orain erriberetako Erriai eta ibaiari jarraikiaz ditugu bideak. Bañan leen gauzak etziran ola; gure biderik zaarrenak, gaitzez-gain eta aal dan zuzenena ta azkarrena ibiltzeko egiañak zeuden... Oraingo Autopistak ibilli nai duten bezela.

* * *

Gauza onen adigarri ta argigarri, ikusi dezagun, Gipuzkoa'n gai ontan gertatzen dana.

Gipuzkoa'k bide asko dauzka: zaar eta berri; zuzenka ta gurutzeke, trabeska. Zuzenka, Irun'dik Gaztelerrirakoa; trabeska, Nafarro-aldeetik Bizkai'rakoak.

Irun'dik Gaztelerrirako zaarrena, dudarik gabe, Aizkorri'ko San Adrian'en barrena, Araba'ra zijoana zan; gaitzez-gain zijoana... salbo-ta, gaur oraindik ijitoak eta kontrabandistak ibilli oi dirana... eta, gerratean, orain eun urte, Santa Krutz Apaizaren mutillak ibilli oi zirana. Biderik zuzenena; erririk ia bat-ere ikutzen ez duana; Gipuzkoa'ren bizkar-ezur-gañean, ifarraldetik egoaldera dijoana; Lasarte'n Oria ibaia bein igaro ezker.

Zarate'ko bentara igo, eta

Andazarrate'n barrena,

Ernio'ko Zelatun'en barrena,

Bidania'ko lepoan barrena,

Santa Ageda antziñako Ermitatxoan barrena,

Murumendi'n barrena,

Mandauri'ko portuan barrena,

Zumarraga'ko Eizaga'n barrena,

Aztiria'ko Santa Marina'n barrena, zuzen-zuzenean

San Adrian'a jotzen zuana, eta andik Araba'ra....

Erririk ikutzeke, mendirik-mendi joaten bait zan bide guztian.

Ola ziran gauzak Erdi-ardiora.

Gero etorri ziran—XIII gizaldian-edo, Erri Bilduak sortu alean—Segura'n barrena,

Ordizia'n barrena,

Tolosa'n barrena,

Leizaur-Andoain'en barrena,

Ernani'n barrena,

errekarik-erreka, ibaiari jarraikiaz zijoazen ta dijoazen bide luzeak, eta geroago, XVIII eta XIX gizaldian egindako bidezabal *kamioak*...

* * *

Beste adigarri bat, emen alpatu ditekenean, Donostia'tik Orio'ra zijoana da: gauza garbi askoa.

Gaur XIX gizaldiko «kamioa», Añorga'n barrena, Usurbil'en barrena, Agiñaga'n barrena, ibaiari segi bait dijoa Orio'ra; bañan leengo galtzada zaarrak, oraingo Autopistak daraman bide bera zeraman, Mendizorrotz'en eta Arratzain'en erdi-erdetik, Orio'ko sarreran dagon San Martin Ermita ederra jo arte... Biderik laburrena ta azkarrena... Agiñaga-inguruan ibaiak gaurko kamioari egiñerazten dizkion biurrik bat ere gabe, zuzen-zuzen zijoana...

* * *

Orra, bada, gauzak nola diran—nola ziran, obeto. Besteak esan zuana: «Zaarrak berri», edo-ta «Leena beize»...

Itz gutxitan: Autopistak, erriak ikutzeke ibiltzea, ez dala gauza berria, zaar-zaarra baizik. Orduan etzala, ezik, erri bildurik; gaur, berriz, bai—eta nolakoak!? Eta beragatik, orrek ez duala esan nai, gaur ola obe danik. Ori beste kontu bat bait da.